"KIROL ARLOKO TESTU ARAUEMAILEAK EGITEKO, IZAPIDETZEKO ETA GARATZEKO LAGUNTZA TEKNIKOA" XEDE DUEN ZERBITZUA KONTRATATZEKO OINARRI TEKNIKOEN AGIRIA

1.- KONTRATUAREN XEDEA

Kontratuaren xedea da laguntza tekniko juridiko espezializatua ematea kirol-arloko araudia erregelamendu bidez garatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Jarduera Fisikoari eta Kirolari buruzko martxoaren 30eko 2/2023 Legearen xedapenak betez. Egin beharreko lanen artean daude arau-testuak egitea, konparazio-azterlanak garatzea eta aholkularitza etengabea ematea araudia izapidetzeko eta Euskal Autonomia Erkidegoko kirol-sistemaren legezko eskakizunetara eta beharretara egokitzeko prozesuan.

2.- PRESTAZIOAREN EZAUGARRIAK

Kontratistak erreferentziako dokumentazio teknikoa eta materiala prestatu beharko du, justifikazioarekin batera, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak onar dezan, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legeak eskatutako izapidetzea hasi aurretik.

Kontratistak arau-testuak berrikusi beharko ditu, edukia egokituz sor daitezkeen lege-aldaketen edo izapidetze-prozesuan jasotako oharren arabera. Araudia egokitu egin beharko da, indarrean dagoen arau-esparruarekiko koherentzia bermatzeko.

Izapidetze-prozesu osoan aholkularitza teknikoa emango da, kontsultak ebaztea eta arau-testuak onartzeko behar diren txostenak edo dokumentazio gehigarria prestatzea barne.

Aldizkako txostenak aurkeztu beharko dira, jarduera bakoitzaren aurrerapen-egoera zehazteko, egon daitezkeen erronkak edo doikuntza-beharrak identifikatzeko eta irtenbide egokiak proposatzeko.

Zehazki, laguntza emango da Euskal Autonomia Erkidegoko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren martxoaren 30eko 2/2023 Legetik eratorritako araudi hauek garatzeko:

2025

- Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Erakundeen Erregistroa arautzen duen Dekretua (DFLren 57. artikulua)

2026

- Eskola-kirolari buruzko Dekretua (JFLren VII. titulua).
- Kirol Diziplinari buruzko Dekretua (JFLren XIII. titulua).
- Kirol Justiziako Euskal Batzordeari buruzko Dekretua (JFLren 158. artikulua).

2027

- Dekretua, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Euskal Eskolari buruzkoa (DFLren 83. artikulua).
- Eskola-kiroleko lehiaketen diziplina-araubideari buruzko dekretua.
- Kirolariaren gaitasun-azterketa medikoak eta osasun-txartela arautzen dituen dekretua (DFLren 69.1 eta 92. artikuluak).

2028

- Kirol-ekipamenduen erroldak arautzen dituen dekretua (DFLren 102. artikulua).
- Erantzukizun zibileko asegurua arautzeko agindua (DFLren 87. artikulua).

3.- KOORDINAZIO TEKNIKOA

Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritza arduratuko da koordinazio teknikoaz, eta kontratistak planteatzen dituen proposamen guztiak gainbegiratzeaz eta baliozkotzeaz arduratuko da. Gainera, zerbitzua behar bezala gauzatzeko behar diren informazio eta baliabide guztiak emango ditu. Era berean, beharrezkoak diren lan-ildoak eta jarduketak proposatu ahal izango ditu kontratua gauzatzeko edozein unetan, nahiz eta baldintza-agirian berariaz adierazi ez, eta behar adina bilera egin ahal izango ditu, alderdiek eskatuta.

Kontratistak Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzari eskatu ahal izango dizkio beharrezko informazioa duten dokumentuak, betiere datu pertsonalei buruzko konfidentzialtasuna eta dokumentu publikoen sekretua errespetatuz.

Kontratistak langile tekniko nahikoak eta egokiak jarriko ditu Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzari aholku emateko. Era berean, pertsona bat izendatuko du kontratatutako jarduera zuzentzeko eta Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzarekin koordinatzeko.

Pertsona hori kontratistaren ordezkaria izango da haren jarduna edo presentzia beharrezkoa denean, administrazio-klausula partikularren agirian eta preskripzio teknikoen agirian zehaztutako betebeharren arabera, bai eta kontratu-betebeharrak betetzearen ondoriozko beste egintza batzuetan ere, betiere zerbitzua gauzatzeko eta ondo funtzionatzeko.

Araudiaren zirriborro bakoitza eta entregatutako txosten bakoitza Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak baliozkotu beharko du hurrengo faseari ekin aurretik. Horrek bermatuko du egindako lanak betetzen dituela kontratuaren berariazko baldintza teknikoak eta legalak.

Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak berrikuspenak edo doikuntzak eskatu ahal izango ditu entregatutako dokumentuetan, eta kontratistak konpromisoa hartu beharko du doikuntza horiek ahalik eta lasterren egiteko, zerbitzuaren kalitatea eta koherentzia bermatuz.

4.- ADMINISTRAZIOAK BERETZAT GORDETZEN DITUEN EGIAZTAPENAK

Kontratua gauzatzen den bitartean, Administrazioak beretzat gordetzen du prestazioa zuzena dela egiaztatzeko eskubidea, eta prestazio hori administrazio-klausulen agirietara, preskripzio teknikoen agiri honetara eta kontratistaren eskaintzara egokitzen dela egiaztatzekoa. Alde horretatik, jakinarazten zaizkion gaiak zuzendu edo egokitu beharko ditu, adierazten zaion epearen barruan.

Vitoria-Gasteiz, sinadura elektronikoaren datan.

ELISABET ALTUBE BENGOA

Firmado digitalmente por ELISABET ALTUBE BENGOA
Fecha: 2025.07.17 14:31:59 +02'00'

Elisabet Altube Bengoa
Jarduera Fisikoaren eta Kirol Zuzendaritzaren zerbitzuburua